



Jangela-batzordea zuen seme-alaben elikadura hobetzeko, eskola-jangela leku atsegina eta eroso izatea lortzeko, eta haurrei elikadura osasungarria zein garrantzitsua den erakusteko eskura duzuen gunea da.

## ANIMATU ETA HARTU PARTE!

# ESKOLA-JANGELA

Jakizu nola hobetu zure seme-alaben elikadura



Argitaratzaileak: [justiciaalimentaria.org](http://justiciaalimentaria.org) | [ehige.eus](http://ehige.eus)

Testuen edizioa, diseinua eta maketazioa: [puntoycoma.org](http://puntoycoma.org)

Irudiak: Emma Gascó

Laguntzaileak:



Euskal Herriko  
Ikasteen Gurasoen  
Konfederazioa

# Zer hobetuko zenuke eskola-jangelan?

## Elikadura? Ordutegiak? Giroa?



### Jangela-batzordea da hori egiteko eskura dugun tresnarik onena.

Zuzendaritzak, jangelako arduradunak, DBHtik aurrerako ikasleen ordezkariak eta gurasoek osatzen dute. Ikastetxeko elikadurari buruz zeresana dugunok elkarlanean aritzeko topagunea da.

## Jangela-batzordearen helburuak

- Ikastetxeko elikadura hobetzea.
- Familien, ikasleen eta jangelako lantaldearen lankidetzaren erraztea, kudeaketa eraginkorragoa eta partizipatiboagoa izan dadin.
- Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, zer hobe daitekeen jakiteko eta kalitate ezin hobea bermatzeko aldaketak proposatzeko.
- Ikasleengan ohitura osasungarriak eta osasunerako hezkuntza sustatzea.

## Zergatik hartu parte jangela-batzordean

Gune horretan, eskola-jangelak behar bezala funtziona dezan lagun dezakezu, alderdi praktikoetan eraginez:



- Menuak eta elikagaien kalitatea.
- Jangelako giroa eta haurren ongizatea.
- Zerbitzuaren kudeaketa gardena.
- Sor daitezkeen gorabeheren konponbidea.
- Hobekuntza-proposamenak.

## Parte hartzea erraza da!

Eskola-jangelan parte hartzeak denbora askorik ez kentzeko, eta zeregin baliagarria eta bizigarria izateko, honako hauek funtsezkoak dira, besteak beste:

- Funtzionamendu arinak, ondo antolatuak eta adeitsuak parte-hartze eraginkorra ahalbidetzen du.
- Eginkizunak modu ekitatibo eta errealistan banatzea.
- Bilerak eraginkorrak eta atseginak izan daitezen lortzea.
- Pertsona bakoitzak informazioa ondo datorkionean kontsultatu eta erabili ahal izatea bermatzeko duten lan-tresnak izatea.
- Komunikazioa antolatzea, gehiegizko mezu-kopurua saihesteko.



**Gida praktikoa honetan, nola egin azalduko dizugu!**

